

# Nazionalismoa eta bere teoria

*Ludger Mees*

*EHUko Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Leioa*

Munduko historian ez dago gai eta arazo askorik, nazionalismoarena baino gehiago aztertua eta ikertua izan denik. Azken hamarkadetako iharduera akademikoak nazionalismoari buruzko teoria ugari eta, sarritan, kontrajarriak sortu ditu. Adituek ere nekez menperatzen duten oihan teoriko zabal eta ilun horretan zenbait orientabide jartzea da artikulu honen helburua. Horretarako, lehen atal batean, nazionalismo hitzaren analisi etimologikoa aurkezten da honako galdera hauei erantzun ahal izateko: Nondik dator hitza eta nolako definizioa ematen diote zenbait ikerlari ospetsuk? Ondoren, nazionalismo-mota desberdinak bereizi eta sailkatu egiten dituen tipologia eskaintzen da, tipologia honen irizpiderik nagusia nazionalismoaren funtzioa izanik. Bukatzeko, etorkizunari begira, nazionalismoaren razionalizatzearen aldeko apostua egiten da, bere baitan daramatzen osagai arriskutsuak indargabetzeko.

Few historical subjects have been studied and investigated more than nationalism. During recent decades, academic activity has produced a multitude of theoretical and in many cases contradictory approaches to nationalism. The aim of this article is to propose some information that might be helpful for an orientation in the theoretical jungle, in which even experts on the subject usually have problems not to get lost. The first chapter deals with an etymological analysis of the concept of "nationalism" in order to reveal its origins and present some definitions given to it by historians and sociologists. In the second part we propose a typology of the different models of nationalism, based on the main criterium of their specific functions in their historical context. In the concluding chapter, we present some reflections about the necessity of "rationalizing" nationalism in the future as the only way of deactivating its potentially dangerous ingredients.

## Sarrera

Munduko historian ez dago gai eta arazo askorik, nazionalismoarena baino gehiago aztertua eta ikertua izan denik. XIX. mendetik hasita, historiariek, soziologoek, nahiz politikologoek arreta handia eskaini ohi diote nazionalismoari.

Nahiz eta nazionalismoari buruzko bibliografia ugaria eta aberatsa izan, "nazionalismoaren teoriarik" ez dago. Gaur egun, teoria asko eta batzuetan kontrajarriak erabiltzen dira nazionalismoari buruzko ikerlanetan. Izan ere, hiru arrazoi hauek zaildu egiten baitute nazionalismoaren azterketa. Alde batetik, nazionalismoa fenomeno globala da, hau da, kontestu historiko desberdinetan eta eskualde, herri eta kontinente desberdinetan garatzen da. Horrexegatik ere izaera eta ezaugarri anitzeko fenomeno da. Adibide bakar bat baino ez aipatzearren: XX. mendeko herri azpigaratuetakoz nazionalismo antikolonialistak ezer gutxi dauka ikusteko XIX. mendearen hasierako nazionalismo alemanarekin.

Bestalde, kontuan eduki behar da nazionalismoak gutxienez bi mendeko historia daukala (XIX. eta XX.a). Historiaren bilakaerak eta aldaketek ere markatzen dituzte nazionalismoaren garapena eta izaera, baita mugimendu nazionalista berberen barruan ere. Horra hor, esate baterako, Alemaniako kasua. Bertan, denbora gutxian, hiru nazionalismo-mota bereiz daitezke. XIX. mendearen hasierako nazionalismo aleman liberala, progresista eta absolutismoaren aurkakoa izan baldin bazen, 1871ez geroztik, hau da, Bismarcken Inperioaren sorreraren ostean kontserbatzaile eta neurri handi

batean autoritario bihurtu zen. Nazionalsozialismoaren garaian (1933-1945) berriz, eta XIX. mendearen hasierako izaera liberala guztiz ahaztuz, demokraziaren aurkako ideologia erreakzionarioa, biolentoa eta arrazista bezala definitu beharra dago Alemaniako nazionalismoa.

Hirugarrenik eta azkenik, ez dugu ahaztu behar nazionalismoa, fenomeno historikoa izateaz gain, fenomeno bizia eta gaurkoa ere badela eta egunero prentsan azaltzen diren albiste berriak sortzen dituela. Egunez eguneko gaurkotasun honek analisisa zaildu egiten duela begi bistan dago.

Teorien ugaritasun hau ikusirik, artikulua labur batean ezinezkoa da oihan teoriko hori egituratzea edo estrukturatzea. Beraz, hemen ez gara nazionalismoa bere osotasunean aztertzen saiatuko. Gure helburuak askoz mugatuagoak dira. Lehenik eta behin nazionalismoaren teoriaren bilakaera historikoa azaltzen ahaleginduko gara. Ondorengo atalean nazionalismo-mota desberdinetako tipologia bat aurkeztuko dugu. Bukaeran, gaurkotasuneko arazo batetik abiatuz eta aurreneko ataletan esandakoan oinarrituz, nazionalismoari buruzko zenbait ondorio eta gogoeta gehituko ditugu.

## Nazionalismoaren teoria

Ugariak dira "nazionalismo" hitzari buruzko eztabaidak. Halere, hitzaren jatorri, garapen eta garrantziari dagokionez, adituen arteko kontsensusua handi samarra da. Alde batetik, inork ez du nazionalismoaren garrantzia zalantzan jartzen. F.Meinecke historilari alemanaren

hitzetan, nazionalismoa –sozialismoarekin batera– XIX. mendeko bi korrante ideologietako bat izan zen. Ideologia eta mugimendu hau XVIII. mendeko bukaeran Mendebaldeko Europan eta Iparramerikan jaiotzen zen, ondoren Europa osoan eta gero mundu osoan hedatzeko. Europan, XX. mendean zehar, batez ere I. Mundu-Gerraren ostean, gorakada nabarmena izan zuen. II. Mundu-Gerraren ostean, berriz, Asian eta Afrikan zabaltzen zen.

“Nazionalismo” hitzaren edukia eta esanahiari dagokionez, bestalde, teorikoen ezadostasun dexente dago, logikoa denez. Izan ere, hitz berberarekin oso fenomeno desberdinak deskribatzen baitira: nazionalismoa agertzen da bai XIX. mendeko Balkanetako mugimendu herrikoi baten programan, nahiz XX. mendeko kolonialismoaren aurkako mugimendu afrikar baten azalpenetan. Nazionalismoak har dezake bai mugimendu inperialista, nahiz inperialismoaren aurkako mugimenduaren itxura. Nazionalismoaren izenean zapal daiteke herria, baina, bestalde, herri asko nazionalismoaz baliatu dira zapalkuntza gainditu eta askatasuna lortzeko. XIX. eta XX. mendeetan zehar, historikoki hazi eta garatutako estatuak deuseztatu egin ziren (Inperio austrohungariarra), burujabetasun nazionalaren izenean. Aldi berean, eta irizpide nazional berberaren arabera, estatu berriak ere sortu ziren (Italia, Alemania, Grezia, Polonia, ...). Nazioa defenditu beharreko aitzakiaz baliatuz, guda asko piztu dira. Halere, argudio berberak beste zenbait kasutan askatasuna eta demokrazia ekarri du.

Horrelako adibide franko gehitu litezke, ondorio honetara iristeko: ez

badago nazionalismoaren teoriarik, ez dago ere nazionalismorik, nazionalismoaren aurpegi historiko asko eta itxura askotakoak baizik. Beraz, logikoagoa litzateke, nazionalismoari buruz hitz egin edo idaztean, singularra erabili ordez pluralean aritzea.

Horrela bada, ba al dago nazionalismo desberdinen arteko amankomuneko ezaugarririk? ¿Zer da nazionalismoa eta nondik dator? Etimologiari dagokionez, “patriotismo” hitzarekin loturik dago nazionalismoa. Izan ere, XVIII. mendean patriotismoaz ondoko hau ulertzen zen, alegia, herri, estatu dinastiko edota erregearekiko harreman emozional bat. XIX. eta batez ere XX. mendeetan zehar patriotismo-hitzaren zentzuaren bilakaera gertatu da. Urteak aurrera joan ahala, patriotismoak gero eta gehiago nazio zehatz edo Estatu nazional zehatz batekiko lotura eta maitasuna adierazten zuen. Bukarera, patriotismoa nazionalismoaren sinonimoa bihurtu da. Nazionalismo hitza aurreneko aldiz erabili zuena seguraski *Johan Gottfried Herder* (1774an) izan zen. Halere, kontzeptu honen benetako hedapena XIX. mendeko bigarren erdian eman zen.

Nazionalismoaren definizioari dagokionez ez badago adostasunik, bai ordea, bere funtsezko ezaugarri batzuei dagokienez. Nazionalismoaz hitz egiten denean, hauxe aipatzen da gehienetan, alegia, giza talde baten kontzientzia, beste talde batzuekin parekatuak, desberdina eta berezia izatearena. Kontzientzia honen oinarriak mota askotakoak izan daitezke, hala nola talde horren homogeneitate etniko, linguistiko edo konfesionala, baita ere historian zehar egindako esperientzia berdintsuak (gudak, amankomuneko

erakundeak, ...). Talde nazional baten partaideak batzen dituenak, kasu askotan, ustezko misio historiko baten egileak izatea izan ohi da, baina baita ere beste herrien azpibalorazioa, besteeziko etsaitasuna eta gorrotoa.

Asko dira nazionalismoaren izaera hitz gutxitan definitzen ahalegindu direnak. Horien artean, *Karl W. Deutsch* soziologoa ezagunenetarikoak dugu. Berak, 1950.eko hamarkadaz geroztik nazionalismoa "*espirituaren egoera*" bezala definitu du. Egoera horretan, "*komunikazio sozialaren sistemaren barruan, albiste, oroimen eta ideia nazionalak beste ideia guztien gainetik nagusitu egiten dira, erabaki politikoak hartzean garrantzi eta indar berezia lortu dituztelarik*". Teoria honen arabera, identitate nazional bat sor dadin, komunikazio sozialaren hedapena da oinarrizko baldintza.

Definizio zabalago bat eskaini du *Eugen Lemberg* soziologo alemanak. Bere hitzetan, nazionalismoa da "*ideien, balorapen eta arauen sistema bat, gizarte eta munduari buruzko kontzepzio bat. Sistema honek giza talde handi bati laguntzen dio, bere jatorriak eta gaurko egoera ezagutzeko eta guzti honetaz kontzientziatzeko. Elkarren arteko kontzientziazio-prozesu honek, berriz, giza taldearen partaideen integrazioa eta beste taldeekiko bereizketa bideratzen du*".

*Theodor Schieder* historilariak borobildu eta zehaztu egin du Lemberg-en teoria hori ondoko hau gehituz: "*Nazionalismoa ideologia integraziaile berezia da, erreferentziatzen beti, modu batera edo bestera, nazio bat hartzen duena*

*alegia. Nazionalismoa ez da, ordea, bakarrik talde sozial edo erlijioso bat*".

Ekarpen desberdin hauek kontuan harturik, honako definizio hau emango genioke nazionalismoari:

Nazionalismoa Iraultza Amerikarra eta Frantsesaren ondorengo ideologia eta, aldi berean, mugimendu politiko eta soziala da. Nazionalismoaren oinarrizko baloreak nazioa eta estatu nazional subiranoa dira. Nazionalismoa herri bat edo giza talde handi bat mobilizatzeko gauza da. Nazionalismoaz hitz egin daiteke leialtasun indibidualaren jasotzailea nazioa denean, eta ez konfesioa, dinastia, eskualde eta paisajea, tribua edo klase soziala. Hori gertatzen denean, gizabanakoa jadanik ez da gauza guztien gainetik gizateriaren zati edo hiritar unibertsa, XVIII. mendeko filosofo ilustratuek pentsatu eta idatzi zuten bezala. Orain, gizabanakoa nazio baten partaide bihurtu da.

Nazionalismoa definitzean zailtasun handiak baldin badaude, are gehiago gertatzen da nazioa eta herria zer diren zehazten saiatzen garenean. Izan ere, badago ere nazioa zer den zientifikoki definitzea ezinezkotzat jotzen duenik, *Hugh Seton-Watson* teorilari ingelesak eta nazionalismoa sakonki aztertu duen aditu ospetsuak egin zuen bezala. Halere, zailtasun guztien gainetik, beste teoriko asko definizioak zehazten ahalegindu dira. Lehen aipatutako *Karl W. Deutsch*-entzat, esate baterako, "*herria*" hauxe da, alegia, "*distanzia handiak gainditzeko eta elkarren artean azkar eta ongi mota guztietako gaiak eta albisteak komunikatzeko gauza den gizabanakoen konglomeratu bat*". Deutsch-en arabera, komunikatzeko gaitasun honek normalki aman-

komuneko hizkuntza, erlijio eta kultura eskatzen du. Horrela definitutako herria horretaz gain estatuaren jabe baldin bada eta botere politiko autonomoa baldin badu, gaineratzen du Deutsch-ek, nazioa dei dakioke. Halere, eta horixe da Deutsch-igegindako kritiketariko bat, historiak erakutsi duen legez, kasu askotan estatua nazio baten burrukaren ondorioa izan da, eta ez, ordea, beti nazioa estatuaren fruitua. Izan ere, estaturik gabeko nazio asko ere ezagutzen dira.

*Max Weber* soziologo ospetsuaren lanetan ere nazioari buruzko zenbait aipamen aurki daitezke. Weber-entzat "nazio"-hitzak inplikatzeko du zenbait giza taldek euren arteko elkartasun berezi bat sentitzen dutela, beste talde batzuegandik bereizten dituen hain zuzen. Elkartasun berezi honen sortzaileak eta bultzatzaileak desberdinak izan daitezke, hala nola hizkuntza, kultura, kontzientzia historikoa, erlijioa, besteak beste. Halere, aipaturiko elementu hauen garrantzia identifikazio eta kontzientzia nazionalaren garapenean desberdina izan ohi da nazioz nazio: serbiar eta grekoen kasuetan, euren kristautasun ortodoxoa izan zen XIX. mendea iritsi baino lehen turkiar musulmanegandik bereizten zituena, nahiz eta mendeetan zehar inperio berberan elkarrekin bizi. Irlandan, berriz, biztanle gehienek katolizismoa izan zen ingeles protestanteekiko bereizgarria. Bereizgarri bezala, erlijioak baino askoz ere garrantzi handiagoa zeukan hizkuntzak Prusiako ekialdeko probintzietan bizi ziren poloniarrentzat, Bohemiako txekiar, eslovakiar eta alemanentzat, baita Errusiako Finlandian bizi ziren finlandiar eta suediarrentzat ere.

Asko erabiltzen den nazioari buruzko beste definizio ezaguna "*nazio kulturala*" ("*Kulturnation*") eta "*nazio estatala*"aren ("*Staatsnation*") arteko konparazioan datza, edo, Hans Kohn teorikoaren hitzetan, nazioaren "*kontzeptu objektiboa*" eta "*kontzeptu subjektiboa*"ren arteko konparaketan. *F. Meinecke*-k asmatu zituen kontzeptu hauek, eta ez dago itzulpen zuzenik frantsesera, ingelesera edo gaztelaniara. Nazio estatalaren ideologo nagusietarikotzat *Ernest Renan*, erlijioak aztertu zituen aditu frantsesa, jo ohi da. Guztiz ezaguna da Renan-ek nazioari buruz egindako definizioa: "*L'existence d'une nation est (...) un plébiscite de tous les jours*", edo beste era batera esateko: nazio baten izatea edo existentzia hiritarren borondatean oinarritzen da, hau da, nazio bat izateko borondatean, Frantziar, Ingalaterran edo Estatu Batuetan gertatu omen zen bezala.

"Nazio kulturalaren" kasuan, berriz, irizpide "objektiboak" dira, hiritarren gaintik, nazioa definitzen dutenak (hizkuntza, lurraldea, erlijioa, arraza, besteak beste). Horrelako kasuak ekialdeko eta erdialdeko Europan, Alemanian eta Italian gertatu ziren.

Bereizketa teoriko honekin batera balorazio etiko eta politikoa eman ohi da. Faxismoa ahalbideratu zuen nazioari buruzko demokraziaren aurkako kontzeptu determinista, autoritarioa eta irrazionala kontzeptu liberal-demokratiko eta boluntaristatik bereizten da.

Halere, errealitate historikoan nekez berez daitezke hain garbi bi kontzeptu hauek. Izan ere, sarritan bien arteko nahasketa eman baita, hots, irizpide "subjektibo" eta "objektiboen" nahasketa. Alsaziarrak,

adibidez, “objektiboki” historia, kultura eta hizkuntzari dagokionez alemanak dira, baina 1789ez geroztik Estatu frantseseko hiritarrak izan nahi dituzte. Bestalde, Frantzia estatua baldin bada, ez da bakarrik bere biztanleek horixe nahi izan zutelako, hau da, “*volontée générale*”ek horrela erabaki zuelako. Horretaz gain, beste hainbat faktore eta zirkunstantzia politiko, dinastiko, diplomatiko eta militar kontuan hartu behar dira. Alemaniako kasuan beste horrenbeste esan daiteke. Bertan “nazio kulturalaren” kontzeptua arma politiko bezala erabili izan zen batasuna eta estatua lortzeko. Baina estatu hori 1871n azkenik osatu zenean, neurri handi batean ere alemanok horixe nahi izan zutelako izan zen, eta ez bakarrik hizkuntza bera hitz egiten zutelako (Ekialdeko Prusiako masuratarrak polonieraz mintzatzen ziren).

Atal honekin amaitzeko, nazioaren definizio baterako zenbait elementu proposatuko ditugu. Nazioa giza taldea da, hau da, herria edo herriaren zati garrantzitsua, herritarren arteko harreman linguistiko, kultural, erlijioso edo politikoak direla eta, bere barneko kohesioaz eta beste taldeekiko bere berezitasunaz eta desberdintasunaz konturatu eta kontzientziatu egin dena. Talde honek burujabetasun politikoa eskatzen du, ez badu burujabetasun hori estatu nazional baten barruan gauzatu. Burujabetasun politikoari dagokion aldarrikapen honetaz gain, nazio baten funtsezko eta oinarrizko ezaugarria hau da: giza talde edo herri baten kontzientzia nazioa izatea, edo behintzat, nazio hori izan nahi izatea. Beste elkartasun-elkarteekin parekatuta, hala nola komunitate profesionaletan, klase soziala edo familia, nazioaren bereizgarria honako hau da: burujabetasun politikoaren

aldarrikapenari askoz ere garrantzi handiagoa ematea beste eskakizunei baino. Nazioa eta estatua askotan ez baldin badira gauza bera ere, bien arteko harreman historiko estua badago, eta harreman hori arlo linguistikoan ere antzeman daiteke. Izan ere, ingelesez “nation”, edo frantsesez “nation”, eta baita gaztelaniazko “nación” hitzak ere, bai nazioaren esanahia nahiz estatuarena har dezake. “Nacionalización” hitzak hiru hizkuntzetan “estatalización” esan nahi du.

Historikoki, nazioa ez da, *Herder*-ek esaten zuen bezala, “*Jainkoaren eskutik*” emandako zerbait, baizik eta lortu eta gauzatu beharreko helburu bat. Nazioak sortu, garatu, egin egin behar dira. Arrazoi osoa zuen *Massimo d’Azeglio*k, Piemont-eko lehendakari ohiak, 1861ean Italia sortu zenean eta ipar eta hegoaldearen arteko desberdintasun handiak komentatuz, honakoa zioenean: “*Italia sortu dugu, orain falta zaiguna italiarrak sortzea da*”.

### Nazionalismoaren tipologia

Nazionalismoari buruzko eztabaidak sarritan oso polemikoak eta emozionalak izaten dira. Ideologia nazionalistaren erabilpenak erregimen faxisten partetik, eta bereziki nazionalsozialismo alemanak eragindako sarraskiek, berotu egin dute debatea II. Mundu-Gerraren ondoren, logikoa den bezala. Horrela, baita arlo akademikoan ere, maiz gertatzen da zientzia norberaren balorazio etikoa edo politikoarekin nahastu egiten dela. Moralismo merkeak alde batera utziz, artikulu honetako helburua nazionalismoaren tipologia bat eskaintzea da. Tipologia osatzeko

dauden irizpideen artean, guk nagusiki bat aukeratu dugu, alegia, nazionalismoaren funtzioak.

### **1. “Risorgimento”ko nazionalismoa**

Nazionalismo-mota hau “Nazionalismo liberala” (*Hayes*) bezala izenez ere ezaguna da. Bere eredu historikoa XIX. mendeko nazionalismo italiarra da. Historikoki, nazionalismo-mota honen gorakada European Vienako Kongresutik (1815) I. Mundu-Gerraren bukaerara bitartean gertatu zen. Bere funtzio nagusiari dagokionez, funtzio emantzipatzaileko indar politikoa izan zela baieztatu daiteke, hain zuzen ere oposizio liberalak erabilitako indar politiko eta ideologikoa estatu edo inperio absolutista baten aurkako borrokan. Nazionalisten arabera, absolutismo horrek nazioaren edo tradizio nazionalen garapena oztopatzen zuen. Haiek askatasun nazional eta askatasun indibidualaren arteko lotura estua ikusten zuten. Bere ideologorik garrantzitsuenek (*G.Mazzini*, eta neurri batean ere *J.G.Herder*), baina baita ere gainontzeko nazionalista gehienek, nazionalismoaren izaera ia erlijiosoa azpimarratzen zuten, beraien ustez misio historikoa betetzen ari zirela eta. Beren aberriari leialtasun eta maitasun nagusia zor bazioten ere, ez zuten inoiz nazioarteko ingurua ahazten. Izan ere, mugimendu nazionalista hauek aldi berean internazionalistak ere izaten baitziren. Adibide ugari frogatzen dute ezaugarri internazionalista hori. Horrela, esate baterako, 1820ko harmarkadan Europako nazionalistek grekoei otomandarren aurkako askatasun-borrokan elkartasuna adierazi zieten. Gauza bera gertatu zen poloniarrek 1830/31an Errusiako tsarraren aurka altxatu zirenean.

1834an Mazzinik Suizan “La Giovine Europa” elkarte sekretua sortu zuen, bertan nazionalista italiar, poloniar eta alemanak biltzeko eta elkarte honen bidez Europa osoko mugimendu nazionalistak girotzeko eta bultzatzeko. Antzeko elkarte internazionalistak Londresen ere sortu ziren.

“Risorgimentoko” nazionalismoaren azpi-tipologia baten arabera nazionalismo bateratzaileak eta nazionalismo sezesionistak bereizten dira. Hauen helburua nazio baten dinastia multinazional batetik ateratzea baldin bada (grekoak, txekiarrak, finlandiarrak, irlandarrak), nazionalismo bateratzaileek zenbait eskualde desberdin elkartzuz, estatu bat sortzea (Alemania, Italia) zuten programatzat. Poloniarrek aparteko kasu berezia ziren. Denbora luzez hiru inperio dominatzaile (Prusia, Errusia, Austria) desberdinetan sakabanaturik, bere mugimendu nazionalistan bi helburuak nahastu egiten ziren, atzerriko inperioetatik ateratzea eta estatu bat sortzea alegia.

### **2. Nazionalismo berritzailea edo erreformista**

Nazionalismo hau XIX. mendeko bigarren erdian, batez ere Asian garatu zen. “Risorgimento” Nazionalismoaren antza handia zuen mugimendu erreformista eta demokratikoa zelako eta bere helburu nagusiak egitura politiko eta sozialen modernizazioa zelako. Halere, bi nazionalismo-mota hauek puntu garrantzitsu batean bereiztu ziren. Izan ere, nazionalismo berritzailearen abiapuntua zegoeneko eginda zegoen estatua izaten zen, eta huraxe eraberritzea edo “birsortzea” proposatzen zuten nazionalistek.



Nazionalismo-mota hau sor zedin zirkunstantzia historikoak aztertuz gero nazionalismo defentsibo bezala definitu beharko genuke, hain zuzen ere Mendebaldeko estatuetakoinperialismoaren aurkako borrokan erabilitako tresna politiko eta ideologiko bezala. Zentzu horretan XX. mendeko nazionalismo antikolonialistaren aurrekoa zen nazionalismo berritzaile hau. "Berritzaile" dei dakioke nazionalisten tesia hauxe izan ohi zelako: Estatuaren modernizazio orokorra atzerriko menpekotasunaren aurkako borrokan defentsarik onena da.

Adibide ezagunenak aipatzearen, Japonia eta Turkia, baita Txina, Egipto eta 1921en ondoko Iran ere aipatu beharko genituzke, baina agian Japonia izan zen nazionalismo honek gehien eragin zuen herria. Bertan nazionalismo honen sorkundea 1853an kokatu beharko genuke, Estatu Batuetako itsas armadak Tokioko badia inbaditu zuenean, eta 1854az geroztik Japoniak Estatu Batuekin eta Mendebaldeko beste zenbait herriekin Japoniarentzat kaltegarriak ziren merkatal itunak egin zituenean hain zuzen ere. Horren ondorioz, 1860ko hamarkadaren bukaeratik hasita, berrikuntza militar, administratibo, ekonomiko eta politiko sakonak burutu ziren.

Nazionalismoaren papera berrikuntza-prozesu horretan ez zen txantxetako. Nazionalismoak ideologia integratzailearen papera jokatu zuen, modernizazio-prozesuak sortutako desorekak eta gastu sozialak legitimatzeko hain zuzen. Aldakuntza-prozesu sakon horretan, nazionalismo japoniarrak tradizio zaharrak (Enperadorea nazioaren ordezkariak nagusitzat hartzen zen) eta garatutako

Mendebaldetik zetozen berrikuntza teknologiko eta ekonomikoak elkartzen zituen. Horrela, hamarkada gutxitan Japonia goitik behera aldatu zen. Antzinako estatu feudala, azpigaratua eta militarki ahularen lekuan gaur ezagutzen dugun estatu moderno eta indartsua jarri zen.

### 3. Nazionalismo Integrala

Nazionalismo-mota honi deitura desberdinak eman ohi zaizkio (nazionalismo erradikala, estremo, espantsionista, agresiboa, ...) Bere ideologorik garrantzitsuenetako batek, *Charles Maurras* idazle frantsesak hain zuzen, eman zion "integrala" definizioa.

Orokorki, Risorgimentoko nazionalismoaren ondoren jaio eta garatu zen, hau da, XIX. mendeko bigarren eta XX. mendeko lehen erdian. Historiak erakutsi duen legez, nazionalismo integrala edozein mugimendu nazionalistatan sor daiteke. Halere, adibiderik ezagunenak faxismo italiarra eta nazionalsozialismo alemana dira. Bere ezaugarri nagusiei dagokienez, nazioa zalantzan jarri ezinezko balorea absolutua, erlijioaren ordeko bihurtzen dela esan daiteke. Gizabanakoa nazioaren menpean eta horri dedikaturik bizi da guztiz. "Risorgimentoko Nazionalismoaren" osagai demokratiko eta berdintzaileak edo igualitarioak alde batera uzten ditu nazionalismo integralak. Risorgimentoko nazionalismoarentzat nazio guztiek eskubide berdinak baldin bazituzten, nazionalismo integralak batzen zuen bere nazioari egindako kultua beste nazio batzuen ukapenarekin (askotan bortxakeria erabiliz), nazio hauek ustez balore gutxiagoko nazioak zirelako. Ideologikoki bere oinarriak darwinismoan



zituen nazionalismo honetan nazioa zer den eta zer izan behar lukeen erabakitzen duena buruzagi autoritario eta karismatikoa izan ohi da, “Führer” bat.

Risorgimentoko nazionalismoaren ondokoa zela esan badugu ere, nazionalismo integralaren antzindari historikoa nazionalismo jakobinoa izan zela baieztatu izan da maiz, jakobinoek nazioaren izenean oposizio guztiaren zapalkuntza antolatu eta legitimatu zutelako, aldi berean gutxiengoaren asimilazio behartua burutu zutelarik. Ondoren, Napoleon Bonaparteren garaian hain zuzen, nazionalismo honek bilakaera agresiboa, militarista eta imperialista izan zuen.

Nazionalismo integral hau sor zedin baldintza historikoak oso konplexuak dira eta ezin ditugu artikulatu labur honetan sakonki aztertu. Halere, eta eztabaida zientifiko honi buruzko zenbait argibide eman nahian, lehenik eta behin hauxe aipatuko dugu: nazionalismo integralak batez ere berandu egindako estatuetan lortu zuen eragina eta indarra, hau da, Alemanian, Italian eta Japonian. Estatu horiek munduko banaketa kolonialean baztertu samarrak izan ziren eta hori zela eta, zenbait teoriarrien arabera, nazionalismo integralaren funtsezko zereginetako bat ondoko hau zen, alegia, konkista kolonialean baztertutako herri hauen gutxiengotasunezko konplexua konpentsatzea.

Halere, horrelako azalpen sasi-psikologistek ihes egin nahian, beste historikari batzuek herri bakoitzaren barneko arazoei lehentasuna ematen diete, eta ez, ordea, nazioarteko politikari, nazionalismo integralaren

sorkunde eta garapena aztertzeke beren ahaleginetan. Testuinguru honetan, Alemaniako kasua adibide gisa jar daiteke. Bertan, XIX. mendearen hasierako nazionalismo liberala eta progresista, 1848ko Iraultzaren aitzineko boterezko eliteen eskutik porrota jasan ondoren, Bismarcken Inperioan kontserbatzaile bihurtu zen. Aginte politiko eta ekonomikoa bere artean banatu zuen koalizio aristokratiko-burguesa nazionalismoaz baliatu zen gizartearen status quoa defendatu eta legitimatzeko. Horretarako agintariak “etsai antinazionalak” sortu zituzten (sozialistak, juduak, poloniarak, frantsesak) gizartearen barneko gatazkak desbideratu asmoz. Horrela, Alemanian edozein demokratizazioa blokeatuta gelditu zen II. Inperioan, baina baita ere, beste testuinguru batean, ondorengo “Errepublikarrik gabeko (Weimarr-eko) Errepublikan”. Hitz bitan laburbiltzeko, Alemania, Europako beste herri gehienekin konparatuta, “bide berezi” batetik modernizatu zen, hau da, modernizazio ekonomikoa modernizazio politikorik gabe lortu zuen, eta desoreka honek izugarritzko arazoak sortarazi zizkion. Azken finean, desoreka honetan datza nazionalismo integralaren, hots, nazionalismoaren benetako arrazoia.

Dena den, Alemanian ezezik, nazionalismo integrala beste zenbait herritan ere garatu zen, baita Britainia Handia bezalako tradizio demokratiko luzeko herrietan ere. Bertan 1895ean “*Navy League*” erakundea sortu zen, sindikatu eta hauteskunde libreen aurkako indar politiko ultrarreakzionarioa. Ondoren, 1920 eta 1930eko hamarkadetan hain zuzen, Europako herri askok izan zituzten antzeko mugimendu nazionalista faxistak edo

sasi-faxistak. Desberdintasunak desberdintasun, mugimendu guzti horiek amankomuneko ezaugarri batzuk bazituzten. Alde batetik, garai horretako gizartearen krisi latz baten ondorioa zirela begi bistan dago. Bestetik, eta horretan Alemaniako kasua ez da hain berezia, herri horietako nazionalismo integralaren funtzioa azken finean hauxe zen: gizarte baten barneko gatazka politiko eta soziala kanpora desbideratzea eta horrela elite sozialen agintea eta, orokorki, status quoa legitimatzea eta ziurtatzea. Horrek ez du esan nahi lehen aipaturiko kanpo-arazoetako faktoreak nazionalismo integralaren azterketan erabat baztertu behar direnik. *Eugen Lemberg*-i, nazionalismoari buruzko aditu ospetsu bati, arrazoia eman behar zaio faktore horien garrantzia azpimarratzen duenean. Lemberg-en ustez, nazionalismo integrala sarritan sortu izan ohi da “harrotasun edo ohore nazionalaren krisi bat” ematen zenean, eta, gaineratzen du Lemberg-ek, krisi hau atzerriko mehatxu baten ondorioz eta nazioa arriskuan ikusten zenean etorri ohi da, askotan porrot militar eta politiko garrantzitsu baten ostean (Frantzia 1870/71ean; Alemanian 1918/19an). Beraz, edozein nazionalismo integralari buruzko azterketa sakonek bai kanpoko nahiz barneko arazoei arreta eskaini beharko lieke, azalean gelditu nahi ez badu behintzat.

#### **4. Nazionalismo anticoloniala**

XX. mendeko Afrikan eta Asian eman da nazionalismo-mota hau. Bere helburu demokratiko eta emantzipatzaileei dagokienez, Risorgimentoko Nazionalismoaren antz handia du. Halere, desberdintasun garrantzitsu bat ere badago, aztertzen ari garen nazionalismo anticolonial

honetan nazioa batzen duena hiritarren amankomuneko borroka anticoloniala baita. Izan ere, kasu gehienetan ez baitago “nazio kulturalak” batzen dituen amankomuneko ezaugarri kulturalik, Afrikako eta Asiako heterogenotasun etniko eta linguistiko handia dela eta. Adibide bakar bat aipatzearen, horra hor Indiako 200 hizkuntza ofizialak. Beraz, horrelako baldintzetan, nazionalismo anticoloniala komunitate heterogeno baten integrazioa erraztu egiten duen ideologia aurrerakoia bezala defini liteke, edo, politologoek hizkera erabiltzeko, “*state building*”a aspaldi amaitu ondoren, “*nation building*”a ahalbideratzen duen ideologia eta mugimendua da nazionalismo anticoloniala.

#### **5. Europako herri txiki-txiki nazionalismoa**

Mugimendu nazionalista hauek printzipioz ere Risorgimentoko nazionalismoko kategoria batean, nazionalismo sezesionistetan hain zuzen, sar litezke, euren helburua orokorki estatu edo inperio batetik irteera izan ohi baita. Halere, nazionalismo hauek aparteko kategoria merezi dute, kasu ugari dagoelako eta XVIII. mendeko bukaeraz geroztik historia luzea dutelako. Horretaz gain, estatistika zehatzik ez badugu ere, herri txiki-txiki nazionalismo hauek azken hamarkadetan bibliografia dexente sortu dute, beste nazionalismo-motek baino gehiago seguraski.

Kasuen ugaritasuna une batez sintesiaren mesedetarako alde batera uzten badugu, nazionalismo-mota honen sorrera azaltzen duen oinarriko arazoari dagokionez hauxe esango genuke: nazio txiki horietako estatu-*State building*”a egiten da “*Nation building*”a egin gabe. Horrek esan nahi

du, eta horretan *S.Rokkan* Estatu Batuetako soziologo ezagunaren irizpideak erabiltzen ditugu, estatu zentralek ez dituztela oinarrizko baldintzak jarri, euren sistema politikoek ongi funtzionatzeko. Oinarrizko baldintza horiek honako hiru hauek lirake, alegia, herritarren identitate politiko eta kulturala lortzea eta sendotzea; bigarrenik, zentruarekiko lotura estua ziurtatzea; eta azkenik, hiritar guztiek oinarrizko helburu politiko berdintsuak onar ditzaten lortzea.

Esparru teorikoaren beste aldean eta gehien bat marxismoaren iturritik edandako ikerlarien bitartez, nazionalismo hauek zentru eta periferiaren arteko gatazka bezala ulertu izan dira, edo zehatzago esateko, periferia kaltetzen duen kolonialismo zentralistaren aurkako erantzuna bezala. Tesi honen defendatzaileak batez ere politologo eta soziologo ingeles eta ipamerikarrak dira (*Michael Hechter, Ernest Gellner, Tom Nairn*) eta gehien erabilitako adibideak Eskozia, Gales, Ipar-Irlanda, Okzitania eta Britainia dira.

Halere, erraz ikusten denez, herri txikietako nazionalismoen arrazoiak nazionalismo orokorraren arrazoi eta baldintza historikoak bezain ugariak, konplexuak eta batzuetan kontrajarriak dira. Izan ere, esate baterako, kolonialismo zentralistaren tesi hau ezin baita onartu Katalunia eta (Hego)Euskadiko kasuetan, biak, Espainiako erdia edo zentru tradizional eta pobreakin konparatuta, historikoki lurralde aberatsak izan direlako. Hemen, faktore desberdinen konbinazioak lagundu beharko digu kasu hauek aztertu eta ulertzeko, hala nola tradizio luzeko autonomia politikoa galdu izana eta beharturik (Euskadi: azken karlistadaren ondoren) estatu

nazionallean sartua izanak eragindako frustrazioa; Estatu eta lurralde periferiko hauen arteko komunikazio eta integrazioaren zailtasuna; berezitasun kulturala (hizkuntza); errepresioa; modernizazio sozioekonomiko bortitzak eta azkarrak sortutako desoreka politiko eta sozialei emandako erantzuna, besteak beste.

Kasuen ugaritasun honek analisisa zaildu egiten bazuen, are gehiago gertatu da azken urteotan Europako ekialdean mugimendu nazionalista gehiago piztu direnean. Halere, kasu gehienetan mugimendu nazionalista zahar batzuen birpiztea baino ez da. Pizkunde horren testuingurua eraldakuntza politiko sakonek ("*Perestroika*") eta, antzinako erregimen komunista erori eta gero, boterean sortutako hutsuneek, markatzen dute. Horretaz gain, eta horixe da mugimendu horiek oraindik areagotu egiten dituen, askotan gatazka nazionalistak gatazka konfesionalekin nahastu egiten dira (Kaukaso: Islam eta Katolizismoa; Jugoslavia ohia: Musulmanak, katolikoak eta ortodoxoak).

## Ondorioa

Hain zuzen ere Jugoslavia izandakoaren adibidea hartu nahiko genuke artikulutxo honen amaieran nazionalismoari buruzko zenbait gogoeta egiteko. Aurreneko lerroetan behin eta berriro ikusi denez oso fenomeno heterogenoa eta konplexua da. Izan ere, nazionalismoak, bere historia luzean zehar, Jano-aurpegia izan ohi du, eta Balkanetako guda odoltsu horretan bere aurpegi itsusi, zikin, ilun eta tristeena erakusten ari zaigu. Han, hainbat hiritarrekin batera, nazionalismoak hastapenetako bere eduki demokratiko eta pluralak

lurperatu egin ditu. Erabat ahaztuta dirudi XIX. mendearen hasierako "Ilirismoa"k, hau da, desberdintasun etniko eta kultural guztien gainera hegoaldeko eslaviarrak batu nahi izan zituen mugimenduak. Orain nagusitu egin den nazionalismo-mota expansionismoa helburutzat eta garbiketa etnikoa estrategiatzat duen nazionalismo integrala dugu. Guzti hori ikusita, historiak emandako ikasgaietatik ondorio egokiak atera nahian eta nazionalismoaren etorkizunari begira, honako tesi hau defendatzea zilegi iruditzen zaigu: bakarrik nazionalismoa razionalizatu egiten den neurrian, hau da, bere

identifikazio eta legitimazioa historiaren gaineko balore eta sinbolo abstraktuetan definitu ordez hiritarrek kontsensuaren bidez egindako edo egin beharreko proiektu politiko zehatzetan oinarritzen duen neurrian, Janoren aurpegi itsusi eta goibela gainditzen hasiko da. Horrela, bere identitatea galdu gabe eta demokratziaren mesedetarako, nazionalismoak "*patriotismo konstituzionalaren*" (J.Habermas) itxura hartuko luke. Hori gertatuko balitz, ondorengo artikulua batean agian nazionalismo integralari arreta gutxiago eskaini beharko genioke.

Mees, L., (1991): "Europako Herri Txikien

## Bibliografia

- Beramendi, J. G., Máiz, R., (1991) (comps.): *Los nacionalismos en la España de la II República*, Madril.
- Breuilly, J., (1990): *Nacionalismo y Estado*, Bartzelona.
- Coakley, J., (1992) (ed.): *The Social Origins of Nationalist Movements. The Contemporary West European Experience*, Londres.
- Deutsch, K.W., (1966): *Nationalism and Social Communication. An Inquiry into the Foundation of Nationality*, Cambridge (Mass.)<sup>2</sup>.
- Egile ezberdinak, (1984): Los nacionalismos en la España de la Restauración, in: *Estudios de Historia Social*, 28-29.
- Gellner, E., (1983): Nations and nationalism, Londres (badago gaztelaniazko bertsioa).
- Haupt, G., Weill, C., (1978): *Marx y Engels frente al problema de las naciones*, Bartzelona.
- Hechter, M., (1975): *Internal Colonialism. The celtic fringe in British national development, 1536-1966*, Londres.
- Hobsbawm, E. J., (1990): Nations and nationalism since 1780, Cambridge (badago gaztelaniazko bertsioa).
- Hroch, M., (1985): *Social preconditions of national revival in Europe. A comparative analysis of the social composition of patriotic groups among the smaller european nations*, Cambridge U.P.
- Jáuregui, G., (1986): *Contra el Estado-nación. En torno al hecho y la cuestión nacional*, Madril.
- Kedourie, E., (1988): *Nacionalismo*, Madril.
- Kohn, H., (1949): *Historia del nacionalismo*, México.
- Linz, J., (1985): "From primordialism to nationalism", in: Tiryakin, E.A. / Rogowski, R. (eds.): *New nationalisms of the developed world*, Boston, 203-53 or.
- Mees, L., (1990): "Alemania berria Europa berria. Alemaniako batasunaren historia, orainaldia eta etorkizuna", in: *Jakin*, 58, Donostia, 7-34 or.
- Mees, L., (1991): *El nacionalismo vasco y su base social en perspectiva comparativa*, Bilbo.

Esnatzea. Ikuspegi konparatibo batean oinarritutako zenbait gogoeta Euskadiko nazionalismoari buruz", in: *Jakin*, 66, Donostia, 65-96 or.

Nairn, T., (1979): *Los nuevos nacionalismos en Europa*, Bartzelona.

Pérez-Agote, A., (1989)( ed.): *Sociología del nacionalismo*, Bilbo.

Recalde, J. R., (1982): *La construcción de las naciones*, Madril.

Smith, A., (1976): *Las teorías del nacionalismo*, Bartzelona.

Tilly, C., (1975) (ed.): *The formation of national states in Western Europe*, Princeton.